

KANALAK

Edozein produktuk arrakasta izan dezan oso garrantzitsua da bezeroak produktu hori ezagutzera iristea, bestela ez genukeelako arrakastarik lortuko. Arrakasta hau lortzeko hainbat baliabide jorratu behar dira aurretik, eta baliabide horiei kanalak esaten diegu. Gure bezeroarengana iristeko, gure kasuan ez dugu denda fisiko baten beharrik izango, produktua euskal liburu dendetan egongo delako eskuragarri.

Bestalde, produktua bezeroengana irits dadin, publizitatea egitea nahitaezkoa izango zaigu. Hau, hiru modutara egingo dugu: Iragarkien bidez (bai telebistan eta bai irratian), sare sozialen bidez eta ikastolen bidez. Iragarkia guk sortuko dugu eta euskal telebistan eta irratian azalduko da. Sare sozialei dagokienez, guk kudeatuko ditugu eta honako hauek izango ditugu: Instagram eta facebook. Eskariak instagrameko *direct* mezuen bidez egiteko aukera egongo da eta hay gertatzen de kasuetan correos en bidez edota guk geuk banatuko ditugu. Sare sozialetan bezeroekin gertutasuna lortzea da gure helburu nagusia, bertan iruzkinak uzteko. Eta, azkenik, ikastetxeetan, ikasturte hasieran egiten diren bileratan gure produktua gurasoei azaltzeko eskatuko diegu.



Liburua eskuratzeko, aurretik aipatutako bi moduak egongo dira:

1-Euskal Herriko liburu-dendak: Bertara zuzenean fisikoki erosteko aukera egongo da, eta denda hauek liburua izango ez balute, elkar argitaletxetik eskatzeko aukera egongo lukete.

2-Instagrameko direct mezuek: Bertatik zuzenean guri eskatzeko aukera izango lukete eta guk "correos" zerbitzutik bidaliko genieke. Kasu horretan, bidaltze kostuak (eskaeraren arabera) ordaintzea beharrezkoa izango

litzateke. Aurretik eskariaren balio totala emango diegu bezeroei eta hauek gure bankuko kontura sartuko dute. Behin dirua sartuta, bidaltze prozesuarekin hasiko ginateke.

Bestalde, liburu hauek haurren hezkuntzarako ezinbestekoak direnez, ikastoletara, eskoletara eta liburutegietara joango ginateke den-dena azaltzera, leku hauei esker, aurretik aipatu dugun moduan, hainbat familietara iritsi daitekeelako gure proiektua errazago. Gainera leku hauetan orokorrean haurren hezkuntzak garrantzia handia duenez, uste dugu gure proiektuari asko lagunduko liguketela, beraien ekarpena txikia bada ere.

